XEDAPEN OROKORRAK

EKONOMIA ETA OGASUN SAILA
KULTURA SAILA

6269

267/2011 DEKRETUA, abenduaren 20koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren 2011ko ekitaldiko aurrekontuko 9211 programan («Espainiako Sektore Publikoarekiko Finantza Harremanak») diru-sarrerak lortu direla-eta, 4512 programan («Kirolak») 22.432,41 euroko kredituak gaitzen dituena.

Kirol Kontseilu Gorenak emandako 22.432,41 euroko diru-sarrera osagarriak eskuratu dira, EAEko infantilak eta kadeteak 2011ko Espainiako txapelketetara egindako joan-etorriak eragindako gastuak ordaintzeko. Kultura Sailak eskatu du horien gaikuntza..

Horiek horrela, gaitu egingo dira kreditu horiek, 1/2011 Legegintza Dekretuaren 82. eta 83. artikuluak betez (1/2011 Legegintzako Dekretua, maiatzaren 24koa, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean diren lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duena).

Ondorioz, Ekonomia eta Ogasuneko eta Kulturako sailburuen proposamenez, eta Jaurlaritzaren Kontseiluak 2011ko abenduaren 20an egindako bilkuran aztertu eta onartu ondoren, hauxe

XEDATZEN DUT:

Artikulu bakarra.– Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren 2011ko ekitaldiko aurrekontuan kreditu batzuk gaitzea onartzea, gastuen egoera-orri honetan:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
4512	233.00	22.432,41

Diru-sarreren ondorengo egoera-orrian kopuru bereko diru-sarrerak lortzetik sortu dira kreditu horiek:

Programa	Azpikontzeptua	Euroak
9211	439.00	22.432,41

EAEko infantil eta kadete mailetako kirolariek 2011n antolatutako Espainiako txapelketetara egin behar dituzten joan-etorrien gastuak ordaintzeko erabiliko dira zenbateko horiek.

AZKEN XEDAPENA

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, 2011ko abenduaren 20an.

Lehendakaria,
FRANCISCO JAVIER LÓPEZ ÁLVAREZ.

Ekonomia eta Ogasuneko sailburua,
CARLOS AGUIRRE ARANA.

Kulturako sailburua,
MARÍA BLANCA URGELL LÁZARO.